

PRENTSA OHARRA 135/20 **MARTXAN DAGO DBIZI SISTEMA BERRIA**

Gaur aurkeztu da Dbizi, Donostiako bizikletak alokatzeko sistema berria, jada martxan dagoena. Dbizik 46 geltoki ditu hiriko hainbat aldetan, eta 437 bizikleta, **jada erabiltzeko prest**.

Aurkezpen ekitaldian parte hartu dute Donostiako Alkate Eneko Goiak, Mugikortasuneko eta Garraioetako Zinegotzi Pilar Aranak, Dbuseko Zuzendari Gerente Igor Gonzalezek, Udaleko Mugikortasun Zuzendari Jone Argoitiak, URBASEReko Kontseilari Delegatu José María López Piñolek eta MOVUSeko Zuzendari Mauro Fiorek, besteak beste.

UTE BIZISek (MOVUSek eta URBASERek eraturako ABEEa) kudeatuko du Dbizi sistema berria, Dbusen eta Donostiako Udalaren bitartez. Sistema berriak **hobekuntza ugari ditu** aurreko sistemaren aldean, hala nola geltoki eta bizikleta elektriko eta mekaniko gehiago, ordutegi zabalagoa edo bizikleta modelo sendoagoa eta erabiltzen errazagoa.

Dbizik hiritik mugitzeko bide alternatibo bat eskaini nahi die donostiarrei, **beste ohiko garraio bide batzuen osagarri** dena eta ingurumena zaintzen lagunduko duena. Garraio bide praktiko, seguru, osasungarri eta iraunkorra da, Donostia hiria, berdin zalea, eta ingurumenarekin errepestitua izatearen alde egiten duen hiri eredu baten adierazlea.

Dbizi gara

Sistema martxan jartzearekin batera informazio kanpaina bat abiarazi da: Dbizi gara. Kanpaina horren bidez, non protagonistak hiritik ibiltzeko bizikleta erabili ohi duten profil desberdineko lau donostiar diren, Dbiziren funtzionamendua erakusten da, eta hiritarrak sistema erabiltzera animatu nahi dira.



Donostia iraunkorrago batean sinisten dugulako.



Zu ere Dbiziko bazter, zain dituzu 46 geltoki eta bizikleta elektriko eta mekaniko berriak. Deskargatu PBSC aplikazioa eta hiri iraunkor baten alde eragiteko pedalei.



www.dbizi.eus



Nola funtzionatzen du sistemak?

Dbiziko bizikletak erabili ahal izateko, **aurretik alta eman behar da sisteman**. Web orriaren bitartez (www.dbizi.eus) eta sistemaren apparen bitartez (PBSC) eman daiteke izena. Sistemaren appa iOSerako eta Androiderako online dendetan dago eskuragarri. 16 urtetik gorako pertsona guztiek erabili dezakete sistema.

Bizikleta bat erabiltzeko, mekanikoa (urdina) izan zein elektrikoa (berdea) izan, beharrezkoa da **appa edukitzea**. Apean "bizikleta bat lortu" aukera hautatu behar da mapa nagusiaren barruan, QR kodea eskaneatu, eta argi horia berde jarri arte itxaron, zure bizikleta hartu ahal izateko Bizikleta geltoki batean itzultzeko, bizikleta libre dagoen ainguraleku batera (argi gorriak gabe) hurbildu beharko da, geltokiak bizikleta detektatu arte (argi horia) bultzatu, eta ainguraketa baieztatu arte (argi berdea) itxaron. Behin bizikleta itzulita, bizikletaren ainguraketa egiaztatu beharko da apean begiratuta.

Geltokia beteta badago, apean 10 minutu gehiago eskatu daiteke, kosturik gabe, bizikleta hurbil dugun beste geltoki batean utzi ahal izateko.



Sistemaren ordutegia

Hau da sistemaren ordutegi berria:

- Asteleheneretik ostiralera: 6:00etatik 24:00etara
- Larunbat, igande eta jaiegunak: 24 ordu

Tarifak eta deskontuak

Dbiziren ordainketa sistema berriak kuota finko bat ezartzen du, banakako edo taldeko abonua arrunta edo noizbehinkakoa dena, eta erabilerako denbora tarteen arabera ordainketa, bizikleta maileguan hartzen den denboraren arabera. Era berean, tarifa desberdina izango da bizikleta mekanikoa edo elektrikoa erabiltzen bada.

Sistemak taldeko abonua arrunta eta noizbehinkakoa ere baditu, 2-5 pertsonako taldeentzat, familientzat, enpresentzat eta abarrentzat. Abonuaren titular nagusiak egingo ditu taldeko pertsonen erabilerengatiko ordainketa guztiak.

Horrez gain, deskontuak egingo dira bizikleta elektrikoak erabiltzeko tarteen arabera (0-60 minutu) leku garaietan edo urrutik dauden auzoetako geltokietako joan-etorrietan (web orriko planoan adierazitakoaren arabera), eta deskontuak egingo dira, halaber, familia ugariagatik, abonatu arruntetan eta noizbehinkakoetan.

Era berean, **2021eko urtarrilaren 6a baino lehen izena ematen dutenek deskontuak edukiko dituzte** banakako abonatu arruntetan.

- Lehengo sistemaren erabiltzaileek (2020ko ekainean sistemari baja eman zitzaionean abonatuak zirenak) **%50eko deskontua** izango dute banakako abonatu arruntetan. Duela gutxi kode bat jaso dute posta elektronikoz, eta kode hori web orrian sartu ahal izango dute alta ematean, deskontuaz baliatu ahal izateko.

- Egun hori baino lehen erregistratzen diren erabiltzaile berriek, berriz, **%25eko deskontua** edukiko dute banakako abonatu arruntetan.

Bonu arrunta

Indibiduala	Taldearena	bizikleta mekanikoa	bizikleta elektrikoa
35 €	80 €	0 - 30 min. 0,20 €	0,40 € / 0,20€
		31 - 60 min. 0,60 €	1,20 € / 0,72€
		+ 61 min. 6,00 €/h	6,00 €/h / 3,60€/h

- ✓ Bonuaren iraupena: 12 hilabete
- ✓ %40ko deskontu automatikoa bidaia tarifetan, bizikleta elektrikoak erabiliz gero, jatorrizko edo helmugako geltokia berdez markatueta bat bada; hau da, 17, 21, 33, 34, 35, 36, 37 edo 42 zenbakiduna
- ✓ Familia ugarietarako deskontua (%20 orokorra, %50 berezia). 5€/personek izen emate bakoitzeko, 6. kideetik aurrera
- ✓ Enpresentzako deskontua, 10€/personek izen emate bakoitzeko, 6. kideetik aurrera

Noizean behingo bonua


Indibiduala	Taldearena	bizikleta mekanikoa	bizikleta elektrikoa
5 €	10 €	0 - 30 min. 0,40 €	0,80 €
		31 - 60 min. 1,50 €	3,00 €
		+ 61 min. 6,00 €/h	6,00 €/h

- ✓ Bonuaren iraupena: 30 egun
- ✓ Familia ugarietarako deskontua (%20 orokorra, %50 berezia)
- ✓ Zure deskontua lortzeko, jarri harremanetan hemen: administracion@dbizi.eus

Geltokien sarea

Sistema berriaren geltoki guztiak mistoak dira, hau da, guztietan bizikleta mekanikoak eta elektrikoak desainguratu eta ainguratu daitezke. Sistemaren ezarpenaren lehen fasean, 46 geltoki jarri dira, eta 437 bizikleta eskaintzen dira, 120 elektriko eta 317 mekaniko.

Bigarren fasean, gainera, 22 geltoki gehiago jarriko dira, eta Bidebieta, Herrera, Altza eta hiriko beste eremu batzuetara zabalduko da sarea.



Erdialdea

22. Antso Jakituna

Gros

- 1. Udaletxea
- 2. Bretxa
- 3. Santa Katalina Plazatxoa
- 4. Andia **Antiguo Egorria**
- 5. San Martzial
- 38. Kristina Infanta
- 18. Teresa de Calcuta
- 39. **Zarautz mitorablia**
- 19. Frantzia Pasealekua
- 40. Tolosa Hiribidea –
- 40. **Ibaeta**
- 40. **Irakasle Eskola**
- 21. Karmengo Andre Maria

- 6. Arrasate
- 23. Leire plaza
- 24. Morlans
- 7. Mirafloreseko Markesa **Ibaeta**
- 25. Cortázar Arkitektoak
- 8. Urdaneta
- 26. Javier Barkaiztegi
- 9. Easo **Perio**
- 27. Podavines
- 43. Tolosa hiribidea – Psikologia
- 28. Euskal Kontsultak
- 44. Bernardo Estornes
- 29. Barcelona
- 45. Xabier Lizardi
- 30. Isabel II
- 46. Tolosa Hiribidea – Amerika
- 31. Humboldt

- 10. Peña y Goñi
- 11. San Frantzisko - Iparragirre
- 12. San Frantzisko – Galtzada
- 13. San Frantsisko – Nafarroa Hirib.
- 14. Bermingham **Ibaeta**
- 15. Segundo Izpizua
- 32. **Miramon**
- 36. **Antzinelegaina** 4
- 34. **Arantzain**



Geltoki batzuk sare elektrikoarekin konektatuta egongo dira eta bizikleta elektrikoak kargatzeko erabiliko dira; beste geltoki batzuek, berriz, eguzki panelak edukiko dituzte, eta horri esker energetikoki autonomoak izango dira, eta horietan edozein eratako bizikletak lotu ahal izango dira baina ezingo dira bizikleta elektrikoak kargatu.

Dbiziren irudi berria



Etapa berri honetan, Dbizi markak irudi berria dauka, zeinarekin zerbitzua erabiltzaileentzat erakargarriagoa izatea bilatu nahi den, aldi berean, Dbusekin identifikatuta, aterkin beraren azpian dagoen marka baita. Dbizi oso zerbitzu ezaguna da hiritarren artean eta orain kolore urdin eta berde ezagunekin eguneratuko da, kolore horiek baitira garraio iraunkorra irudikatzen dutenak Donostian.

Logotipo berriak mezu positiboa transmititu nahi du, eta B letrarekin jolasten da; izan ere, ez dauka B letrarik eta presente dagoenean soilik zeinu gisa agertzen da, irribarre bat irudikatuta.

Bizikleten ezaugarriak

- Bizikleta berriek egitura sendoa daukate, bizikleta elektriko eta mekanikoetarako ainguraketa sistema berberarekin, eta egurats zabal, itsas giro, bandalismo eta erabilera publiko intentsiboarekiko erresistentek diren fabrikazio materialak eta akaberak dituzte.
- Bizikletaren koadro baxuak aukera ematen die adin eta altuera guztietako erabiltzaileei bizikleta modu seguruan erabiltzeko. Gainera, abiatzeak eta geldialdiak errazten ditu, betiere kontrol zehatza mantenduz.
- Bizikletak grabitate zentro baxua du, baita bizikletaren egituraren osotasuna hobetzen duten eta tente gidatzera eramaten zaituzten zenbait ezaugarri ere; horrek bermatzen du erabiltzailea seguru sentituko dela bizikleta gidatzean.
- Aulkia azken belaunaldikoa da eta diseinu irizpide zorrotzei erantzuten die: erosotasuna, giroarekiko erresistentzia eta pisua. 7 mm-ko altzairu gogortuko errailak eta bigungarri lodia ditu, eta horiei esker esekidura pasiboa bermatuta dago inpaktu eta bibrazio maiztasun ugaritan.
- Bizikletak balazta sistema sendoa du, zehaztasun handiz fernetzea eskaintzen duena.
- Baldintza guztietan konfiantzaz gidatzeko, bizikletak pedal sendoak ditu, altzairu kromatuzko ardatz batekin eta aluminio aleaziozko gorputz moldekatu batekin, polimerozko eta elastomero ez-labaingarrizko gainazalekin batera.
- Bizikletak 24 x 1.95 hazbeteko pneumatikoak ditu, errepide lau eta zailetarako diseinatuak. Aire bolumen gehigarriak abantaila asko eskaintzen ditu: txirringuluarri erabateko kontrola izaten uzten dio oztopoak gainditzean eta zuloetatik igarotzean.





- Bizikletak LED argiztapen sistema bat dauka, aurrean zein atzean, 10.000 orduko bizitza baliagarriarekin. Bizikleta gelditzen denean, argiak piztuta geldituko dira gutxienez 3 minutuz. Islatzaileek (aurrealdekoa, atzealdekoa, pedaletakoak eta gurpiletakoak) eta gurpilaren alboko hormako zerrenda islatzaileak bidaia segurua izatea egiten dute, argi gutxiko baldintzetan.
- Ainguraketarako, sistemak zeharkako buloi sendo bat dauka geltokian, zeinak bizikletaren arra zeharkatzen baitu, eta arraren diseinu triangeluarrari esker bizikleta ainguratzea eta desainguratzea oso erraza da. Ainguraketa sistemaren diseinuari esker, halaber, ekintza bandalikoak baldin badaude geltokiko zein bizikletako kalteak txikiak izango dira. Ainguraketa sistemak, gainera, soinu eta kolore bidezko (koloretako 3 led) abisuak ematen ditu, oso argi, bizikleta ainguraketa puntuan ondo lotu edo deslotu den baiztetatzeko.

Covid-19ari aurre egiteko neurriak

Gauden egoera berrian, hauek dira ezarritako neurriak:

- Sistema kudeatzen duen enpresak egunean behin desinfektatuko ditu bizikletak.
- Erabiltzaileek maskara erabili beharko dute.
- Gomendagarria da eskuak gel hidroalkoholikoarekin garbitzea bizikleta erabili aurretik eta ondoren.

Sistemaren web orria eta informazio zehatza

Dbiziren web orriak (www.dbizi.eus) Dbizi sistemaren gaineko informazio zabala eskaintzen du, hala nola tarifak, geltokien sarea eta bizikleten ezaugarriak. Sistema erabiltzean sortu daitezkeen zalantza batzuk argitzeko erantzunak ere jasotzen ditu, hala nola zer egin bizikleta edo geltokia matxuratzen denean.

Dbizirekin harremanetan jartzea

Dbizirekin harremanetan jartzeko aukera bat baino gehiago dago:

- **Erabiltzaileen Arretarako Bulegoa:** Zorroaga pasealekuko 23-25ean dago, eta bere ordutegia da astelehenetik ostiralera, lanegunetan, 9:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 18:00etara.
- **Telefonoz** (943 060 888), **sare sozialen** bidez (Twitter, Facebook eta Instagram), **posta elektronikoko** bidez (info@dbizi.eus) eta **whatsapp edo telegram bidez** (648 019 332) ere jar daiteke harremanetan Dbizirekin.



- **Web orria:** harremanetan jartzeko inprimakiaren bidez.

- Matxuraren kasuan, urgentziako telefonora deitu daiteke: 943 060 888.

Informazio gehiagorako, kontsultatu www.dbus.eus helbidean edo 943 000 200 telefonora deituta.

